ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	**2020IPLE0007**
ATALA.	**IDAZKARITZA**
GAIA	**ALBIZTURKO UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA**

2020-10-26ko UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

Albizturren, 2020ko urriaren 26an, goizeko 9:30tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Mikel Galarza Arrue
- Larraitz Ezeiza Artola

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Alazne Urkizu Galarraga
- Aitziber Orbegozo Arrospide
- Unai Dorronsoro Olarra
- Aingeru Galarraga Barandiaran

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. PLAN OROKORREAN EGIN BEHARREKO ALDAKETAK
4. 2021EKO ORDENANTZA FISKALAREN HASIERAKO ONARPENA ETA EGUTEGI FISKALAREN ONARPENA
5. HILERRIKO PROIEKTUA
6. AZAROLA GOIKOAKO PORTXEA
7. ARANZABEKO ERREPIDEA
8. AZAROAK 25EKO ADIERAZPENARI ATXIKIMENDUA
9. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2020-09-28ko akta aho batez onartu da.

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2020ko 86 eta 92 bitarteko dekretuen berri eman da.

3. PLAN OROKORREAN EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Albizturko Plan Orokorra 2018. urtean sartu zen indarrean, baina aldaketa batzuk egin beharra ikusten da:

Etxebizitza zaharrak eraberritzeko prozesuan muga betekin topatu gara: Hirigunean (zona urbana) dauden etxebizitzak gehienez 3tan zati daitezke eta zati bakoitzak gutxienez 125 m2 izan behar ditu.

Metro karratu asko dituzten etxebizitzak badirenez eta gaur egungo beharretara egokitu nahirik, gure asmoa gehienezko etxebizitza kopurua kendu eta gutxienezko m2 kopurua 40koa izatea da.

Horretarako beharrezkoa da Albizturko Plan Orokorra aldatzea, eta behin prozesua irekita beste garrantzi gutxiagoko aldaketa batzuk egiteko ere aprobetxatuko dugu.

Egin nahi diren aldaketa guztiak zehaztu ditugu eta Gipuzkoako Aldundiarekin bilera tekniko bat burutu da aldaketa horien bideragarritasunaren inguruan.

Orain, aldaketa prozesuari hasiera emateko herritarren parte hartze prozesu bat jarri behar da martxan, eta horren berri eman behar da GAOn. Azaroko Osoko Bilkuran egitekotan geratu gara.

4. 2021EKO ORDENANTZA FISKALAREN HASIERAKO ONARPENA ETA EGUTEGI FISKALAREN ONARPENA

Momentu hontan urte arteko Kontsumorako Prezioen Indizea %-0,2koa denez eta COVID-19aren pandemiaren ondorioz urte konplikatua izaten ari denez herritarrentzat, 2021. urterako Ordenantza Fiskaletan igoerarik ez egitea adostu da (2020koa mantenduko da).

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 2020ko Ordenantza Fiskalak bere horretan mantentzea.

Bigarrena.- 2021eko Egutegi Fiskala GAOra bidaltzea.

5. HILERRIKO PROIEKTUA

Obra egiteko baimena eman digu Eusko Jaularitzak eta obra burutuko duen enpresa aukeratu behar da kontratazio plataformaren bidez.

Era berean, nitxoetatik atera behar diren gorpuzkien (15 urte daramatenak, 2005 urte artekoak) familiartekoekin harremanetan jarri behar da, Albizturko Udalaren asmoen berri eman, eta gorpuzkiekin zer egiteko asmoa duten jakiteko.

Familiartekoen artean sor daitezken zalantzak argitzeko, Hargoi enpresari (gorpuzkiak ateratzeaz arduratuko dena) bilera eskatuko diogu.

Momentu honetan nitxo bakarra dagoenez libre, helburua hilerriko obra ahalik eta azkarren egitea da. Baina aukera bat izan daiteke hezurtegi komunean sartu behar diren gorpuzkiak atera eta nitxo batzuk gehiago libratzea, obra egiteko denbora irabazteko.

6. AZAROLA GOIKOAKO PORTXEA

Azarola Goikoako eraberritze lanetan portxea egiten hasi ziren Albizturko Udalaren obra lizentziarik gabe, eta Albizturko Udalak portxea gelditzeko espedientea, legalitatea berrezartzeko espedientea eta zehapen espedientea jarri zituen martxan.

Azarola Goikoako jabeek, bide administratiboa amaitu ondoren, errekurtsoa jarri dute Auzitegi Kontenzioso-Administratiboan erabakiaren aurka.

7. ARANZABEKO ERREPIDEA

2020ko irailaren hasieran Aranzabe eta Artutxa arteko errepidera eustorma zati bat erori zen. Ibilgailuak pasa daitezke errepidetik, baina konpondu beharra dago, kotxe asko ibiltzen direlako errepide hortatik eta dagoen egoeran uztea arriskutsua izan daitekelako.

Gipuzkoako Aldundiari galdetu genion nori dagokion konponketa egitea, eta garbi utzi ziguten eustorma dagoen lurraren jabeei (Aranzabe baserrikoak) dagokiela.

Aranzabe baserrikoak ez daude ados erabakiarekin, eta egokiena beraiekin bilera bat egitea izango dela adostu dugu.

8. AZAROAK 25EKO ADIERAZPENARI ATXIKIMENDUA

Osoko bilkurak aho batez Azaroak 25eko adierazpenari atxikitzea onartu du:

AZAROAREN 25-ERAKO EREDUZKO ERAKUNDE ADIERAZPENAEMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNA DELA ETA

COVID-19ren pandemiak gure bizitza eta komunitateak kolokan jarri ditu, pertsona guztien osasunari, segurtasunari, ongizateari eta komunitate-bizitzari erronka handia jarriz. Mundua ulertzeko eta bertan egoteko dugun modua aldatzen ari da. Konfinamenduak, mugimendu-

murrizketek eta harreman-mugek agerian utzi dituzte, beren gordintasun osoz, indarkeria matxista mota desberdinei aurre egiten ari diren emakumeen egoera oso ahulak.

Krisi-testuinguru guztiak, pandemia honekin gertatzen den bezala, indarkeria matxista, ugaltzeko, biderkatzeko eta ugaritzekohaztegi bat dira. Indarkeria hori botere-harreman desorekatuen eta emakumeen aurkako diskriminazioaren adierazpen bat da, eta pairatzen ari garen krisi sanitario, sozial eta ekonomikoaren ondorioz larriagotu egiten dira.

Pandemiak sortutako egoeran, arreta jarri behar dugu beren etxeetan, lanetan eta bizi-espazioetan bizirik irauteagatik indarkeriari aurre egiten ari diren emakume eta neskengan. Gizartearen aitorpen eta elkartasun osoa merezi dute. Testuinguru horretan, isolamendua, babesgabetasuna eta ikusezintasuna saihesteko baldintza egokiak sortzeko lanean jarraitu behar dugu.Horregatik, aurten Euskal Herrian hildako lau emakumeak gogoratu nahi ditugu bereziki gaur, bi EAEn eta beste bi Iparraldean. Errealitate mingarri horrek gizarte gisa interpelatu egiten gaitu, lanean jarraitzeko eta mobilizatzeko konpromisoa hartzeko, horrela gerta ez dadin.

Hala ere, horrekin EZ DA NAHIKOA. Konpromiso politiko argia behar dugu, gizarteak erakundeei eskatzen baitie emakumeen aurkako indarkeria matxista lehentasun politiko bihur dezatela. Inoiz ez bezala zerbitzu publikoen eta erakundeen laguntza eta baliabide guztiak izateko, emakumeei beren askapen-, berreskuratze-, ahalduntze- eta autonomia-prozesuetan laguntzeko garaia da. Ezinbestekoa da emakumeek duintasunez eta segurtasunez bizitzea merezi duen bizitzarako oinarrizko eskubidea berreskura dezaten. Behar-beharrezko baldintza da, gainera, gure herriak eta hiriak bizikidetza seguru, solidario eta berdinzalerako gune gisa indartu daitezen.

Herritarrengandik hurbil gaudenez, euskal udalok ahotsa jarri nahi diogu gure udalerriek emakumeekiko eta indarkeria matxistaren beste biktima batzuekiko duten elkartasunari. Gure erantzukizuna gure gain hartzen dugu, erakunde, kolektibo feminista eta emakumeen kolektibo, aditu eta gizarteko eragile guztiekin lankidetzan eta koordinatuta. Horregatik guztiagatik, Albizturko Udalak konpromiso hau hartzen du:

- **Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eskubideak** arreta-prozesu osoaren **erdigunean** jartzea, haien beharrak eta eskaerak entzun eta aintzat hartuta, babeserako, arretarako, erreparaziorako eta berriz ez gertatzeko bermerako eskubidea bermatuko duten politika berriak diseinatzeko.
- Behaketa **hobetzea**, indarkeria-egoeretan dauden emakumeen forma eta profil berriak hautemateko eta horien aurrean azkar jarduteko.
- Indarkeria matxistaren edozein formari aurre egiten dioten emakumeentzako arreta- eta laguntza-zerbitzuak mantentzea, hobetzea eta **egokitzea**, ikuspegi konpontzailearekin, erakunde bakoitzaren eskumenen esparruan.
- Emakumeen ahalduntzeari eta Gazteen artean indarkeriaren prebentzioari laguntzeko programak **bultzatzea**, etorkizuneko indarkeria-egoerak eragozteko funtsezko tresnak diren aldetik.

- Tokiko bizitzan berdintasun-programak **zaintzea eta egonkortzea**, emakume-kolektibo batzuen egoera ahulak areagotzeko desberdintasunak areagotzearen aurka borrokatzeko.
- **COVID19ren krisiak** emakumeen pobretzean eta kalteberatasunean duen **eraginaaztertzea,** laguntza-jarduera espezifikoak diseinatu ahal izateko.
- **Genero-ikuspegia txertatzea** enplegu-galerak, diru-sarrerak eta krisiaren beste eragin negatibo batzuk **arintzeko neurrietan**, zeinak eragin handiagoa izan duten emakumeengan, eta oztopo diren**indarkeria matxistako egoeretatik ateratzeko**.
- Erakundeen, udalen, foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko **lankidetza eta koordinazioa** eskatzea, baliabideak bermatzeko eta beharrezko ekimen guztiak abian jartzeko, beren eskumenen esparruan.

Halaber, gure bizilagunei dei egiten diegu mugimendu feministak Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko eguna dela-etadeitutako mobilizazioei atxikitzeko.

9. GALDERA ERREGUAK

- Yoseba Maroto arkitektoaren baja: Yoseba Maroto, udalari zerbitzua ematen dion arkitektoa, bajan dago ebakuntza baten ondorioz, eta aurrikuspenen arabera 2 hilabetez luzatuko da baja egoera. Albizturko herritarrei ahalik eta kalte txikiena eragiteko asmoz, presazkoak diren gaietan, beste arkitektoren baten zerbitzuak kontratatuko dira.

-COVID-19 dela eta Albizturko egoera: Azken egunetan 15 kutsatu izan dira Albizturren COVID-19 gaixotasunarekin, eta ezinegona eta beldurra zabaldu da herrian. Ondorioz, Albizturko Udalak bandoa zabaldu du herritarrei egoeraren berri eman eta arduraz jokatzeko eskatuz.

Osoko bilkura, 11:00tan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2020ko azaroaren 2an

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 13:01:32 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.26 09:10:09 +02'00'